



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

V. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2023ko maiatzaren 17, 18 eta 19a
Donostia, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 3.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Genero-markarik gabeko
elementuen itzulpena euskara-
gaztelania hizkuntza-konbinaketan
Eider Rodriguezen *Bihotz
handiegia***

Ane Irizar Melero

101-108 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.v.01.12>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



Genero-markarik gabeko elementuen itzulpena euskara-gaztelania hizkuntza-konbinaketan: Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia*

Ane Irizar Melero

Madrilgo Complutense Unibertsitatea
airizar@ucm.es

Laburpena

Itzulpena jarduera neutrotzat izaten dute maiz askok. Alabaina, amaierako testuan nahitaez eragina izango duten erabakiak hartu behar dituzte itzultzaileek etengabe. Artikulu honetan, horrelako egoera bati erreparatu diogu; hain zuzen, genero-markarik gabeko elementuen itzulpenari, euskara-gaztelania hizkuntza-konbinaketan. Lehenik, fenomeno hori aztertzean kontuan izan beharreko zenbait alderdi teoriko jorratu ditugu, hala nola itzultzaileen inplikazioa, kolaborazioan egindako itzulpena eta autoitzulpena. Auzi horri heltzeko, Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* ipuin-liburutik eta horren gaztelaniazko itzulpenetik ateratako adibideez baliatu gara.

Hitz gakoak: itzulpengintza, genero-markak, itzultzaileen aurreiritziak, euskara

Abstract

*Translation is often expected to be a neutral activity. However, translators must constantly make decisions that will inevitably have an effect on the final text. In this paper, we focus on one such circumstance: the translation of genderless forms in the Basque-Spanish language combination. After discussing certain theoretical aspects that must be considered when studying this phenomenon, such as the translators' involvement in translation and collaborative or self-translations, we dive into this matter through examples from Eider Rodriguez's short story book *Bihotz handiegia* and its Spanish translation.*

Keywords: translation, gender marks, translator bias, Basque

1. Sarrera eta motibazioa

Testu bat itzultzean, zenbait modutan ebatz daitezkeen hainbat zailtasunekin egingo dugu topo. Irtenbide baten edo bestearen alde zergatik egin, hortxe dago koska. Gure doktoretza-ikerketak genero-marken itzulpenean jartzen du arreta. Genero aldetik ezberdinak diren gramatikak dituzten hizkuntzen artean itzultzen dugunean, jatorri-testuan (JT) ez dagoen informazio bat xede-testuan (XT) sartzera behartuta egon gaitezke, edo alderantziz. Gure kasuan, aipatutako fenomenoak euskaratik beste hizkuntzetara egindako literatura-itzulpenetan aztertzea erabaki dugu, metodologia deskribatzailea (Toury, 1995) erabilita.

Hizkuntza gutxituen normalizazioan eta zabalkundean rol garrantzitsua du itzulpenak (cf. Luna, 2006; Manterola, 2014a). Zalantzarik gabe, euskal literatura-eremuan presentzia nabarmengarria du itzulpenak: Joan Mari Torrealdairen (2019) azken ikerketa soziologikoaren arabera, 2017an euskaraz argitaratutako 2.267 liburuetako 805 (% 35,5) itzulpenak izan ziren. Euskaratik beste hizkuntzetara egindako itzulpenak gutxiago dira: ELI (Euskal Literatura Itzulua) katalogoak (Manterola, 2021) 49 sarrera jasotzen ditu urte bererako (2017). Dena den, 80ko hamarkadatik hona, euskaratik egindako literatura-itzulpenek gora egin dute etengabe (Manterola, 2014a: 183).

Euskal itzulpenaren inguruko ikerketek ere garrantzi ukaezina dute, eta azken urteotan gai horretako azpimarratzeko moduko hainbat doktore-tesi izan dira (e.g. Zubillaga, 2013; Manterola, 2014b; Sanz, 2015; Arrula, 2018; Ibarluzea, 2021). Euskarazko itzulpena ikertzen duten lan gehienek, baina, beste hizkuntzetatik euskarara egindako itzulpenari erreparatzen diote; guk, beraz, hain esploratua ez dagoen beste bide horri heldu diogu.

Euskaratik beste hizkuntzetarako itzulpena aztertzea erabaki dugu, gure helburuak betetzeko norabide egokia delako. Euskaltzaindiaren (1991: 36) arabera, «[e]uskarak ez du jenerorik bereizten gramatikan»; aldiz, gure inguruko hizkuntza askotan ez da gauza bera gertatzen (Institut d'Estudis Catalans, 2018; Biber et al., 1999; Álvarez eta Xove, 2002; Riegel et al., 2009; Real

Academia Española, 2010). Gure doktoretza-ikerketan beste zenbait xede-hizkuntza (XH) landuko ditugun arren, artikulu honetan gaztelaniarako itzulpenean zentratuko gara. Demagun «ikasleak etxeko lanak egin ditu» esaldia itzuli behar dugula. Gaztelaniaren gramatika dela eta, hautu bat egin beharko dugu: gure ikaslea «el alumno» edo «la alumna» bilakatuko da nahitaez. Hauek dira, bada, gure ikerketa bultzatzen duten galderak: zer erabakitzen dute itzultzaileek horrelako egoeren aurrean? Zergatik hartzen dituzte erabaki horiek? Modu kontzientean hartzen al dituzte erabaki horiek?

Gure tesi-lanean, hiru fasetan banatu dugu galdera horien erantzunen bilaketa: 1) literatura-lanen eta horien itzulpenen analisi konparatiboa, 2) elkarrizketak itzultzaileekin eta 3) itzulpen-proba. Gure prozedurari buruzko xehetasun gehiago emango ditugu 3.1. Metodologia atalean.

Artikulu honetan, gure ikerketako lehen fasea jorratuko dugu eta, adibide gisa, Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* (2017) ipuin-bilduma eta horren gaztelaniarako itzulpena (2019) erabiliko ditugu.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

2.1. Itzultzea erabakiak hartzea da

Itzulpenak aztertu aurretik, itzultzea zer den eta itzulpen-prozesua zertan datzan ulertu beharra dago. Azken hamarkadetan, erdigunean kokatu dute itzultzailea Itzulpen Ikasketek (Sapiro, 2013: 60); hau da, itzulpenaren produktuaren (testu itzulia) ordez, itzulpen-prozesuan eta horretan parte hartzen duten aktoreetan jarri dute arreta.

Christine Durieuxek (2009) azaltzen duenez, itzultzea etengabe erabakiak hartzea da, eta erabaki horiek kontzienteak edo inkontzienteak izan daitezke. Itzultzaileak, noski, pertsonak dira, eta haien bagaje osoak (hizkuntza-ezagutzak, kultura, identitatea, ideologia politikoa, aurretik irakurritako literatura-lanak...) du eragina hartzen dituzten erabakietan. Gisèle Sapiro (2013: 60) honela azaltzen du: «Translation is regarded in this perspective not as the result of a universal set of cognitive skills but as the product of social practices that depend on cultural norms internalized by the agents who act as translators».

2.2. Generoa eta itzulpena

Argi dago, bada, erabaki neutrorik ez dagoela, ez eta ez erabakitzerik ere. Artikulu honetan lantzen ari garen problematikari dagokionez, xeheago hausnartuko dugu horrek esan nahi duenaren inguruan. Esan bezala, maiz, euskaraz genero-markarik ez duten elementuak maskulinoan edo femeninoan eman beharko ditugu gaztelaniaz. Aukera batak zein besteak, biek izango dute eragina XTan.

Braunek (1997) bere ikerketan antzeman zuenez, oro har, genero-markarik gabeko elementuak sistematikoki maskulinoan itzultzen dira, baldin eta ez badago itzultzailea kontrako erabakia hartzera bultzatuko duen genero-aurreiritzirik. Hori gertatzen da oso feminizatuta dauden zenbait lanbiderekin, erizainekin, kasurako. Printzipio horri MAN (Male-As-Norm) deitu zion.

Maskulinoan itzultzea erabaki ohikoena izateak ez du esan nahi, baina, karga ideologikorik ez duenik. Castrok (2008: 286) honela azaltzen du:

Desde el punto de vista de género, la traductor/a puede ser consciente [*sic*] de su intervención, y consistir ésta o bien en adscribir la ideología patriarcal o bien en adherirse a la ideología feminista. Pero al contrario, también es posible que la traductor/a niegue su intervención, realizando en este caso una intervención INconsciente [*sic*] que implica necesariamente adherirse a la ideología patriarcal dominante, la que precisamente por ser dominante se ve como “normal”, “natural”, incuestionada, incontestable.

Ondorioz, azken hamarkadetan, ideologia nagusi horri aurka egiteko asmoa duen itzulpengintza feminista eta itzulpena eta feminismoa uztartzen dituzten hausnarketak garatu dira, eta gurerara ere iritsi (cf. Arrizabalaga, 2007; Jaka, 2013).

2.3. Itzulpen motak

Gure ikerketan garrantzi handia duten faktoreetako bat da itzultzaileak daukan edo ez daukan informazioa. Printzipioz, pentsatzekoa da itzultzaileak ez daukela JTaren ez dagoen informazioa. Alta, hori hala izateko, beti betetzen ez diren zenbait kondizio behar ditugu.

Autorea ez den beste norbaitek egiten duen itzulpenari alografo deritzo. Kasu horiek dira guk hautatutakoa bezalako fenomenoak aztertzekeo idealak; errealitatea, baina, bestelakoa da. Badaude, bada, kontuan hartu beharreko beste zenbait itzulpen modalitate: alde batetik, bakarkako autoitzulpena eta kolaborazioan egindako (auto)itzulpena; bestetik, zubi-hizkuntzak erabiliz egindako itzulpena.

Labur esanda, JTaren autoreak berak egindako itzulpenari autoitzulpen deritzo. Itzulpen motak espektro batean kokatuko bagenu, eta bakarkako itzulpen alografoa ezker-muturrean balego, bakarkako autoitzulpena eskuin-muturrean legoke (Manterola, 2014a: 93). Bi mutur horien artean, hainbat motatako kolaborazioak ditugu: 1) autoitzulpena itzultzaile alografo baten kolaborazioarekin; 2) autoitzulpena itzultzaile alografo batek berrikusita; 3) itzulpen alografoa autoreak berrikusita; 4) autoitzulpena senide baten kolaborazioarekin; eta 5) autorearen senide edo lagun batek egindako itzulpen alografoa (Dasilva, 2016: 26). Autoitzulpenaren auzia euskal literatura-itzulpenean sakon jorratu zuen Garazi Arrulak bere tesi-lanean (2018).

Bestalde, itzulpen bat «zubi-hizkuntza bidez» egin dela esaten dugu itzulpena jatorri-hizkuntzatik (JH) (zuzenean) egin ez denean, baizik eta JTaren itzulpen batetik (zeharka). Euskaratik beste hizkuntzetara egindako itzulpenetan gehienak dira gaztelaniazko itzulpenaren bidez eramandako lanak (Manterola, 2014a: 183).

Aipatutako bi kontuek gure ikerketan duten eragina ez da batere erdeinagarria. Lehenari dagokionez, autorearen esku-hartzeak esan nahi dezake testuan ez dagoen informazio hori ez dela ezezaguna (autoreak buruan izan dezake). Bigarrenari dagokionez, testua frantsesera itzultzen duen itzultzailea, esaterako, gaztelaniazkoetik abiatu bada, ez du genero-markei lotutako erabakirik hartuko: gaztelaniazko itzultzaileak hartutako erabakietan oinarrituko da.

Autorearen parte-hartzea eta zubi-hizkuntzen erabilera ikerketan aintzat hartzea, baina, ez da beti erraza. Manterolak (2014b: 89, 152) azaltzen duenez, informazio hori ez da beti aitortzen paratestuetan. Gure zereginetako bat izango da informazio hori lortzen eta egiaztatzen saiatzea, eta autorearen parte-hartzeak eta zubi-hizkuntzen erabilerak genero-markarik gabeko elementuen itzulpenean duten eragina aztertzea.

2.4. Ikerketaren helburua

Gure ikerketaren helburu nagusia euskaratik beste hizkuntzetara genero-markarik gabeko elementuak nola itzultzen diren aztertzea da; xeheago esanda, aurretiaz ezarritako zenbait baldintza betetzen dituzten lanez osatutako corpus bat sortu nahi dugu, eta corpus horretako testuen eta horien itzulpenen analisi konparatiboa egin nahi dugu. Analisi horretatik ateratako datuetatik abiatuta, genero-marken itzulpenaren analisi kualitatiboa egin nahi dugu, eta lortutako emaitzak modu enpirikoan egiaztatu nahi ditugu.

Oro har, garatzen ari garen lanaren bidez, gure nahia da itzulpen-prozesua ulertzeko bidean ekarpen bat egitea, gaur egun pil-pilean dauden eta generoa eta itzulpena uztartzen dituzten korronteekin bat egitea, eta ikerketa-bide horiek arreta gehiago merezi duten geure hizkuntza eta literaturara ekartzen laguntzea.

3. Ikerketaren muina

3.1. Metodologia


Sarreran aurreratu bezala, gure doktoretza-ikerketak hiru fase ditu, jarraian xeheago azalduko ditugunak:

- 1) Analisi konparatiboa. Lehen fase hau da hiruretan zabalena eta, une honetan, fase honetan gaude bete-betean sartuta. Gure prozedura hau da: zenbait baldintza betetzen dituzten literatura-lanez osaturiko corpus bat eratu, eta testu horietan aztertu beharreko elementuak identifikatu eta etiketatu. Lanaren itzulpenetan, elementu horiek beste hizkuntzera nola eramaten diren begiratu, eta analisi kuantitatiboa egin. Azkenik, lortutako datuak iruzkindu. Oraindik corpusarekin lanean ari garenez, ez daukagu hori osatuko duten lanen behin betiko zerrenda.
- 2) Elkarrizketak. Itzultzaileekin elkarrizketak eginez, auziaren analisi kualitatiboari helduko diogu, itzulpen-prozesua sakonago ulertzeko.
- 3) Itzulpen-proba. Itzultzaile eta itzulpengintza-ikasle talde batekin, hautatutako testu baten itzulpen-proba prestatuko dugu, aurretiaz lortutako emaitzak probatzeko.

Artikulu honetan lehen faseari helduko diogunez, gure prozedura sakonago azaltzeari ekingo diogu orain. Gure lehen zeregina euskaratik beste hizkuntzera egindako itzulpen guztien zerrenda biltzea izan da. Horretarako, bi iturri nagusi erabili ditugu: NorDaNor (EIZIE, d.g.) eta ELI katalogoa (Manterola, 2021). Jarraian, datu-base orokor horretatik abiatuta, gure helburuetara egokitutako corpus murriztua eratu dugu.

Aztertu beharreko lan-zerrenda mugarritu ondoren, bertako lanen analisiari heldu diogu. Lehen urratsa JTa orraztea da, eta analizatzeko moduko elementuak identifikatu eta sailkatzea. Horretarako, gure corpusari eta gure helburuei egokitutako sailkapen-sistema eratu dugu:

1. irudia. Elementuak sailkatzeko sistema.



1. irudian ikus daitekeen legez, hiru parametro erabili ditugu elementuak sailkatzeko: (1) konkretutasuna. Alde batetik, pertsona zehatzei erreferentzia egiten dieten elementuak ditugu eta, bestetik, pluralak edo generikoak. (2) fikziozkotasuna. Elementu irekien kasuan, genero-informazioa ez dago inon edo/eta ez da existitzen; aldiz, itxien kasuan, informazioa testuan egon ez arren, egiaztatu egin daiteke (hala nola pertsonaia historikoak badira). (3) Intentzioa. Nahitako anbiguitasuna autoreak joko literario gisa sortutakoa da; nahigabekoa, aldiz, euskararen tipologiak ausaz sortutakoa.

Hona hemen, adibide gisa, aipatutako kategorietan sailkatutako zenbait elementu, denak ala denak *Bihotz handiegia* (Rodríguez, 2017) liburutik ateratakoak¹:

1. taula. Elementuen sailkapena.

	Singularra / konkretua	Plurala / generikoa
Irekia	ziru jauari esan zenion zeuretzat nahi zenukeela (91. orr.)	euskaldunok gehiegi jaten genuela (135. orr.)
Itxia	Ikaskide bat izan nuen horrelako begiak zituena [...], zenbat barre egiten zioten eskolan koitaduari . (124. orr.)	garai batean Venezia euskaldunek arrantzatutako bale gantzarekin argizatzen zela (39. orr.)

Azal dezagun labur elementuen sailkapenaren zergatia. Lehen elementuak (*ziru jaua*) pertsonaia zehatz bati egiten dio erreferentzia, eta pertsonaia horrek ez du loturarik errealitatearekin, ezin da bere identitatea egiaztatu; horregatik, elementu konkretu irekitzat jo dugu. Bigarren elementua (*ikaskide bat*), aurrekoa bezala, pertsonaia zehatz bat da; aldiz, testuinguru-arrazoia direla eta, elementu itxiztat jo dezakegu: hitz egiten ari dena adineko emakume bat da, ondoriozta dezakegunez, 60ko hamarkadan umea izandakoa²; beraz, pentsatzekoa da neskentzat bakarrik zen eskola batera joan zela. Beste bi elementuen arteko aldeak antzeko arazoia du: hitz bera izan arren (*euskaldunok / euskaldunek*), badago ezberdintasun bat: lehenak euskaldunoi, orokorrean, egiten digu erreferentzia; besteak, garai bateko baleazaleei bakarrik. Pentsatzekoa da, beraz, gizez ari dela.

3.2. Elementuen itzulpenaren analisia

Jarraian, analisia egiteko, testuak lerrokatzeko tresna bat erabili dugu; hain zuzen ere, TRALIMA/ITZULIK ikerketa-taldeak garatutako TAligner³ tresna. JTak eta XTak lerrokatu ditugu, eta gure corpusean bilaketak egin ditugu, identifikatutako elementuen itzulpena egiaztatzeko.

2. irudia. TAligner tresnan egindako bilaketa bat.

Code	Text	Code	Text
RE2017IL (496)	-Medikua ikusten izan naiz, lasai egon. <input type="text" value="q"/>	RE2019IL (496)	-He visto al medico, estate tranquilo. <input type="text" value="q"/>
RE2017IL (533)	Etzeratze-agiria eman zion medikua berriketa gutzakoa zen.	RE2019IL (533)	La medica que le dio el alta era de pocas palabras.
RE2017IL (538)	Duina bezain basatia zen, eta lozabelek bazekien halakoa behar zela izan bere aldamenean irauteko, beraz hark ere ez zion galderarik egin ez medikuari ezta Ramoni ere.	RE2019IL (538)	Era tan digno como salvaje, y ella sabia que tambien habia que ser asi para estar a su lado, por lo que no pregunto nada, ni a la medica ni a el.
RE2017IL (611)	Madalen besarkatzen ari zen bitartean inguratu zitzaizen medikua .	RE2019IL (611)	La medica se les acerco mientras el abrazaba a Madalen.

Hala, bada, elementuen itzulpenari erreparatu diogu. Genero-markarik gabeko elementuak hiru modutan itzul daitezke gaztelaniara: 1) maskulinoan, 2) femeninoan edo 3) anbiguotasuna mantenduta. Itzulpen-estrategia horiek identifikatu eta zenbatzeak genero-markarik gabeko elementuen itzulpenaren analisi kuantitatiboa egiteko aukera ematen du.

Aipatutako metodologia eta garatzen ari garen lana argitzeko, Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* (2017) laneko bi ipuinetatik ateratako zenbait adibide ekarriko ditugu artikulua honetara. NorDaNor-en arabera (EIZIE, d.g.), bi hizkuntzatar dago itzulua ipuin-liburua: gaztelania eta katalana. Artikulu honetan aztertuko ditugun ipuinen gaztelaniazko ordainak Eider

1 *Bihotz handiegia* ipuin-liburuan ez dugu topatu nahitako anbiguotasunik.

2 «[A]reago hirurogeiko hamarkadan gertatua izateko etorkin familia baten baitan» (126. orr.)

3 <https://addi.ehu.es/handle/10810/42445>

Rodriguezek berak eta Lander Garrok itzuli zituzten. Badakigu bi parte-hartzaileak bikotekideak direla. Alabaina, ez dakigu prozesua nolakoa izan zen eta bakoitzak zer rol izan zuen itzulpenean.

Itzulpenari dagokionez, estrategiak honela sailkatu ditugu: maskulinoa (M), femeninoa (F), anbiguotasuna mantenduta (A). Hona hemen estrategia horietako bakoitzaren zenbait adibide⁴:

2. taula. Elementuen itzulpenen zenbait adibide.

JT	XT	Estrategia
Lankide batek eskerrak eman zizkion bere bizitzako unerik makurrenean (45. orr.)	Uno de los compañeros le dio las gracias porque en el peor momento de su vida	M
Maiatzean Iñaki institutuko ikasleekin Saloura joan zen (47. orr.)	En mayo Iñaki se fue de viaje de fin de curso a Salou con sus alumnos	M
Ixabel lagunekin elkartu zen eta ordu txiki-tara arte ez zuen Ramon gehiago ikusi. (21. orr.)	Ixabel se juntó con sus amigas y no volvió a ver a Ramón hasta bien entrada la noche.	F
Gizon hura bizitzara eustearren jarritako ingeniari-tza hura zaratarik atera gabe eraman zuten erizainek . (45. orr.)	Las enfermeras hicieron desaparecer sigilosamente toda la ingeniería que habían dispuesto para salvar la vida del hombre.	F
Madalen psikomotrizitateko ikaskideekin tximinokeriak egiten. (18. orr.)	Madalen haciendo el mono junto a más estudiantes de Psicomotricidad.	A
[A]nimaliekiko afektua haien espeziekie-d - kiko gorrotoa kudeatzeko modua zen (20. orr.)	[S]u amor por los animales era una coartada para sobrellevar el odio por su especie	A

Esate baterako, *Bihotz handiegia* ipuinean (Rodriguez, 2017: 7-48), genero-markarik gabeko 32 elementu aurkitu ditugu, eta honela itzuli dira: 22 (% 68,75) maskulinoan, 7 (% 21,87) femeninoan eta 3 (% 9,37) anbiguotasuna mantenduta. Elementu motaren arabera, honela geratuko litzateke itzulpen-estrategien sailkapena:

3. taula. Elementuen itzulpenak, elementu motaren arabera sailkatuta.

	Singularra / konkretua		Plurala / generikoa	
Irekiak	M	7 (% 70)	M	14 (% 66,67)
	F	3 (% 30)	F	4 (% 19,05)
	A	0 (% 0)	A	3 (% 14,28)
Itxia	M	0	M	1 (% 100)
	F	0	F	0 (% 0)
	A	0	A	0 (% 0)

3. taulan ikus dezakegu aztertutako ipuinean aurkitu ditugun elementu gehienak pluralak eta generikoak izan direla (22/32), bai eta irekiak ere (31/32). Lehenago aipatu bezala, nahitako anbiguotasunik ez dugu topatu. Kasu honetan, kategoria guztietan gehien erabilitako itzulpen-estrategia genero-markarik gabeko elementua maskulinoan ematea izan da.

Ez duzu ezer arraroa antzematen? ipuinean (Rodriguez, 2017: 123-149), berriz, genero-markarik gabeko 27 elementu identifikatu ditugu: 17 (% 62,96) maskulinoan itzuli dituzte, 2 (% 7,41) femeninoan eta 8 (% 29,63) anbiguotasuna mantenduta. Hona hemen itzulpen-erabakiak elementu motaren arabera sailkatuta:

4. taula. Elementuen itzulpenak, elementu motaren arabera sailkatuta.

	Singularra / konkretua		Plurala / generikoa	
Irekiak	M	4 (% 80)	M	13 (% 61,90)
	F	1 (% 20)	F	0 (% 0)
	A	0 (% 0)	A	8 (% 38,10)
Itxia	M	0 (% 0)	M	0
	F	1 (% 100)	F	0
	A	0 (% 0)	A	0

4 Gaztelaniazko aipuek ez dute orrialde-zenbakirik, TAlignerren lerrokatutako testu-zatietatik atera ditugu eta.

Aurreko ipuineko joera antzekoa suma dezakegu 4. taulako datuetan: elementu ireki gehienak maskulinoan eman dituzte gaztelaniaz. Itxiztat jo dugun elementu bakarra⁵, baina, femeninoan eman dute.

Hurrengo pausoa emaitza horien zergatian sakontzea izango da: zergatik hartu zituzten erabaki horiek Rodriguezek eta Garrok? Modu kontzientean hartu al zituzten? Kanpoko influentzia edo presiorik jaso zuten modu batean edo bestean itzultzeko?

4. Ondorioak

Artikulu honetan, Itzulpen Ikasketa garaikideetan garrantzi handia duten bi alderdi jorratu ditugu: itzulpen-prozesuaren ikerketa, eta generoa eta itzulpena uztartzen dituen ikerketa. Alde batetik, itzultzerakoan erabakiak hartzea saihestezina dela azpimarratu dugu, eta erabaki horiek, modu kontzientean hartu ala ez, ez direla neutroak. Hori hala izanda, azaldu dugu genero-markarik gabeko elementuek itzultzaileari sortzen dizkioten zailtasunak hizkuntza-eremutik harago doazela, eta genero-kontuetan gailentzen den ideologiari aurka egin nahi dioten korronteak labur aipatzeko profitatu dugu.

Aipatutako problematika gure tesian nola lantzen ari garen xehatu dugu ondoren, eta gure corpuseko testu bat ekarri dugu, adibide gisa. Elementuak eta itzulpen-estrategiak nola sailkatzen ditugun azaldu dugu, eta elementuen itzulpenaren analisi kuantitatibo laburra egin dugu. Jakina, ezin dugu ondorio orokorrik atera testu bakarraren analisitik. Nabaritu dezakegu, hala ere, aurretiaz beste ikertzaile batzuek (Braun, 1997; Castro, 2008) antzemandako araua betetzen delako zantzua; hots, elementu gehienak maskulinoan itzultzen direla. Aipagarria da, nolana ere, aztertutako ipuinetan topatu ditugun elementu gehienak pluralak edo generikoak izan direla, eta gaztelaniaz maskulinoan emateak *maskulino generiko* deritzon horri atxikitzearekin bat egiten duela.

Corpuseko testu gehiagoren itzulpenak aztertu ahala, joera hori mantentzen den ikusiko dugu, bai eta zer faktorek (testu mota, itzulpen mota, autorearen eta itzultzailearen generoa, argitalpen-urtea, etab.) eragiten dioten ere.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Gure tesi-lanarekin aurrera egiteko, lehenago aipatutako 2. eta 3. faseei heldu behar diegu. Bestela esanda, genero-markarik gabeko itzulpenen analisi kuantitatiboa egin ondoren, analisi kualitatiboari heldu nahi diogu, itzultzaileen erabakiak hobeto ulertzeko, eta prozesuan sakontzeko; horrez gain, lortutako emaitzak probatu nahi ditugu, itzulpen-proba bat eginez.

Ikuspegi orokorrago batetik, ikerketa-bideak hainbat dira: genero-markarik gabeko elementuen itzulpena, euskara JH hartuta ere, beste XH askotarako itzulpenean azter daiteke; hortik harago, beste hizkuntza-konbinaketa askotara luzatu daitekeen ikerketa-gaia da. Genero-markez gain, hainbat arrazoiengatik sor daiteke anbiguotasuna testuetan, batez ere literatura-testuetan. Horren aurrean, azaldu dugunez, itzultzaileek erabaki egin beharko dute. Beraz, argi dago itzulpen-erabakien eta itzultzaileen esku-hartzearen inguruko ikerketa oso emankorra izan daitekeela.

6. Erreferentziak

6.1. Lehen mailako bibliografia

Rodriguez, E. (2017). *Bihotz handiegia*. Susa.

Rodriguez, E. (2019). *Un corazón demasiado grande* (E. Rodriguez & L. Garro, Itzul.). Literatura Random House.

⁵ «Ikaskide bat izan nuen horrelako begiak zituena» (124. orr.) / «Tuve una compañera de clase que también tenía los ojos así»

6.2. Bigarren mailako bibliografia

- Álvarez, R., & Xove, X. (2002). *Gramática da lingua galega*. Galaxia.
- Arrizabalaga, B. (2007). Itzulpena eta feminismoa. *Senez*, 32, 81–96.
- Arrula, G. (2018). *Autoitzulpenaren teoria eta praktika Euskal Herrian*. [UPV/EHU]. <http://addi.ehu.es/handle/10810/27983>
- Biber, D., Johansson, S., Leech, G., Conrad, S., & Finegan, E. (1999). *Longman grammar of spoken and written English*. Pearson Education Limited.
- Braun, F. (1997). Making men out of people. The MAN principle in translating genderless forms. In H. Kotthoff & R. Wodak (Arg.), *Communicating Gender in Context* (Libk. 42, or. 3–30). John Benjamins Publishing Company. <https://doi.org/10.1075/pbns.42.03bra>
- Castro, O. (2008). Género y traducción: Elementos discursivos para una reescritura feminista. *Lectora*, 14, 285–301.
- Dasilva, X. M. (2016). En torno al concepto de semiautotraducción. *Quaderns: revista de traducció*, 23, Art. 23.
- Durieux, C. (2009). Vers une théorie décisionnelle de la traduction. *Revue LISA/LISA e-journal. Littératures, Histoire des Idées, Images, Sociétés du Monde Anglophone – Literature, History of Ideas, Images and Societies of the English-speaking World*, Vol. VII – n°3, Art. Vol. VII – n°3. <https://doi.org/10.4000/lisa.119>
- EIZIE. (d. g.). *NorDaNor*. Berreskuratua 2023(e)ko otsailaren 15a, -(e)tik <https://nordanor.eus/?n=1>
- Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea. (1991). *Euskal gramatika: Lehen urratsak-I*. Euskaltzaindia.
- Ibarluzea, M. (2021). *Euskal literatura itzuliaren egitura eta islak 1975-2015*. Euskaltzaindia.
- Institut d'Estudis Catalans. (2018). *Gramàtica essencial de la llengua catalana* (1. arg.). Institut d'Estudis Catalans. <https://doi.org/10.2436/10.2500.04.1>
- Jaka, A. (2013). Itzultzaileon kontzientzia feminista... ala matxista?. *31 eskutik*. <http://31eskutik.eizie.eus/2013/10/21/itzultzaileon-kontzientzia-feminista-ala-matxista/>
- Luna, A. (2006). Hizkuntza gutxituetako itzulpena. Galiziera (P. Goikoetxea, Itzul.). *Senez: itzulpen aldizkaria*, 30, 151–165.
- Manterola, E. (2014a). Una mirada hacia la traducción literaria del euskera al castellano. *Hermeneus*, 16, 177–208.
- (2014b). *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa*. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. <https://doi.org/10.12382>
- (2021). *Euskal Literatura Itzuliaren katalogoa (ELI)*. <https://www.ehu.eus/ehg/eli/>
- Real Academia Española. (2010). *Nueva gramática de la lengua española: Manual*. Espasa Libros.
- Riegel, M., Pellat, J.C., & Rioul, R. (2009). *Grammaire méthodique du français*. Quadrigue.
- Sanz, Z. (2015). *Unitate fraseologikoen itzulpena: Alemana-euskara. Literatur testuen corpusean oinarritutako analisisa* [UPV/EHU]. <https://www.inguma.eus/produkzioa/ikusi/unitate-fraseologikoen-itzulpena-alemana-euskara-literatur-testuen-corpusean-oinarritutako-analisisa>
- Sapiro, G. (2013). Translation and Identity: Social Trajectories of the Translators of Hebrew Literature in French. *TTR: Traduction, Terminologie, Rédaction*, 26(2), 59–82. <https://doi.org/10.7202/1037132ar>
- Torrealdai, J. M. (2019). Euskal liburugintza 2017. *Jakin*, 235, 107–131.
- Toury, G. (1995). *Descriptive Translation Studies – and beyond*. John Benjamins Publishing Company.
- Zubillaga, N. (2013). *Alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura: Zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez* [UPV/EHU]. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/tesis?codigo=96655>

7. Eskerrak eta oharrak

Artikulu hau Elizabete Manterola, María Matesanz eta Karlos Ciden zuzendaritzapean egiten ari naizen doktorego-tesitik eratorria da. Eskerrak hirurei eta, batez ere, Manterolari, artikulu honetan emandako laguntzagatik eta egindako zuzenketa eta oharrengatik. Bestalde, nire doktoretza-ikerketan Espainiako Unibertsitate Ministerioaren FPU kontratu bati (FPU21/00801) esker garatzen ari naiz.